

# LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</li> </ul>	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.

### 1. ariketa

**Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

## BERRIKUNTZA: PUBLIKOA ALA SOZIALA?

Arazoak ezin helduzkoak direnean, orduantxe oroitzen gara berrikuntza egin beharraz. **1**

Betidantik, Administrazioa hainbat berrikuntza sozialen iturri izan da, eta da: babes sozialeko sistema eta osasunerako edo hezkuntzarako sarbide unibertsala horren eredu argiak ditugu.

**2** Horrek ez du esan nahi berrikuntza publikorik ez dagoenik, baizik eta berrikuntza publiko hori mugatuegia dagoela aurrekontuen arloko mugapenen ondorioz, edota zerbitzuak ematek haragoko berrikuntza-gaitasuna murrizten duten egitura administratiboen eraginez.

**3** Halakoetan, ezinbestekotzat jotzen da Administrazioak hartu beharreko lidergoa hartzea, benetako erronka estrategikoak definitu eta horiei aurre egiteko moduak zehazteko –norekin, zein baliabideren bitartez, eta baliabideak nola lortu eta nola ezarri–, eta lurraldeko garapen sozialean eta ekonomikoan duen erantzukizuna definitzeko.

Erronkei dagokienez, gogoan izan behar dugu berrikuntza soziala estrategia dela, eta, ondorioz, inpaktuak era eraginkorrago batez sortzeko premia dakarrela, benetan garrantzitsuak diren gaiei ekinez, beste modu batez ekin ere. Horren haritik, 2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Planak zehaztutako definizioaren arabera, «berrikuntza soziala» kudeaketa publikoaren arloan ideia eta praktika berritzaileak aplikatzea da, «balio soziala» sortzeko asmoz. **4**

Erronka horiei aurre egiteko moduei dagokienez, lehenik eta behin ondo kontuan izan behar dugu arrakastatsutzat jotzen ditugun berrikuntza sozialak iraunkorrak eta hedapen handikoak izan ohi direla, aldaketa sistemikoa helburu.

Beraz, berrikuntza sozialaren arrakasta neurtzeko, esparru instituzionalean era disruptibo batean duen eragin-ahalmenari erreparatu behar diogu, xurgatze-ahalmena ahanzi gabe. **5** Lehenengo urratsean, gobernu-egitura gero eta konplexuago eta gero eta elkar lotuagoen aurrean, behar-beharrezkoa da demokrazia parte-hartzailean sakondu eta eztabaida eta erabaki-hartze publikoetan herritarren partaidetza eta konpromisoaren mesedeko ereduak garatzea. Gainera, baliabide urriko testuinguruan, behar-beharrezkoa dugu, halaber, baliabideak lortzeko formulatan eta horiei dagozkien helburuetan (erabileretan) berrikuntza egitea. **6**

Azkenik, administrazioei berrikuntza sozialaren eragile eta horren garapenaren arduradun gisa leporatzen zaien erantzukizunari loturik, hauek dira, gure ustez, erakundeek beren gain hartu beharko lituzketen ekimenetako zenbait: ideia berriak sortzea, ekimenak hautatzea, onartzea eta instituzionalizatzea.

Gaur egun ere, berrikuntza halako ideia distiratsu batekin edo aparteko aurkikuntza batekin lotzen dugu. **7** Batere ohikoak izaten ez diren erlazio edo lotura multzo baten emaitza dira, eta horien bitartez, gure gizarteetako erronkei erantzuteko formula berri bat diseinatzen dugu. Horren adibide argiak ditugu kontsumo-taldeak, hiri-ortuak, denbora-bankuak, sinadurak biltzeko lineako plataformak eta abar. **8** Zeren, Sokratesek esan zuen bezala, «Mundua aldatu nahi duenak lehendabizi bere burua aldatzen hasi behar baitu».

**BERNAOLA, Gotzon eta ATXUTEGI, Goizalde.**  
<pip.blog.euskadi.eus>, 2014ko azaroa.  
Egokitua.

### 1. ariketa. Txertatu testu zatia

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Alabaina, testuinguru konplexu horretan hartzen du garrantzirik handiena Administrazioak berrikuntza-eragile gisa bete beharreko eginkizunak.
- B.** Administrazioak giltzarrizko eginkizuna izan dezake harreman horien sorkuntzan, erraztuz, sustatuz eta bere izaeran txertatuz.
- C.** Eta berrikuntzarako dei hori Administrazioak malgutasunez jokatzearen alde eta aurrean dauzkagun erronka sozial, ekonomiko eta ingurumenaren arlokoei azkartasunez erantzutearen alde egindako eskaerekin batera iritsi ohi da.
- D.** Fase honetan, Administrazioak berrikuntza sustatzeko eta berrikuntza sozialeko ekimenei lekua emateko moduko inguruneak era ditzake arau-garapenaren eta lege-esparru berrien sorkuntzaren bitartez.
- E.** Baina horrekin batera onartu beharra dago zenbait egitura administratibok arriskua hartu eta berrikuntzaren alde egitea inhibitzen dutela, eta gaur egun ere, erantzun estandarizatuak eta norabide bakarrekoak sustatzen dituztela gero eta konplexuagoak eta gero eta dimentsio askotarikoagoak diren arazoei aurre egiteko.
- F.** Administrazio publikoek, esparru instituzional horren arte eta parte diren aldetik, aurrea hartu behar dute berrikuntza sozialaren arloan, aldaketa sistemikoaren aldeko osagai bihurtu nahi baldin badute.
- G.** Hau da, hainbat baliabide, prozesu eta politikaren konbinazioaren bitartez, emaitzak sortzea proposatzen da, pertsonen eta gizarte osoaren bizimoduan hobekuntzak eragiteko xedez.
- H.** Ez gara jabetzen berrikuntza, eta areago berrikuntza soziala, ez dela sortzen normalean aurretiazko osagai berritzaileetatik, ezagutzen ditugun osagaietan inolaz ere ohikoak ez diren konbinazioetatik baizik.
- I.** Eta ildo horretan planteatu behar dira berrikuntza sozialeko ekimenak sustatzea xede duten aurrekontu publikoak, egitura fiskalak eta trazabilitate finantzarioa diseinatu eta zehazteko prozedurekin, edota sinergiak eta zeharkako inpaktuak sortzeko baliabide finantzarioen banaketa-prozedurekin zerikusia duten gai batzuk.

#### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

Soberakoa

**OHARRA:** Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

### 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## GERO ETA ARINAGO... SINESGARRITASUNA GALTZEN

Nola Madrilek hala Gasteizek eta Iruñeak abiadura handiko trenaren defentsa sutsua egitea ez da berria. Euskal Y-a inoiz ez bezala dago bere sustatzaileen babes beharrean, jendartean inoiz baino zalantza handiagoak eragiten baititu proiektuaren bideragarritasunak.

Germà Bel eta David Hoyos ekonomialariek agerraldia egin zuten Eusko Legebiltzarreko Ingurumen eta Lurralde Politikaren Batzordean. Azpimarratu zuten, egindako ikerketek adierazten dute ia inoiz ez dela azpiegitura errentagarria. Izan ere, munduan linea bitan baino ez da lortu eraikuntza-gastuak berreskuratzeko adinako bidaiari kopurua: Tokio-Osaka (urtean 150 milioi bidaiari inguru) eta Paris-Lyon (25 milioi, ia Espainiako Estatu osoko linea guztiek beste).

Ekuazioa sinplea da: abiadura handiko tren oso azpiegitura garestia da, eta ez dago inbertsioa berreskuratzetik bidaiari kopurua biziki handia ez bada. Aipatutako bi adibideez landa, linea bakar batek ere ez du lortu errentagarritasun-atalasea gaintzea. Zehazki esanda, hainbat ikerlanetatik ondorioztatzen da abiadura handia nekez justifika daitekeela sozialki, lehen urteko bidaiari kopurua gutxienez zortzi milioikoa ez bada. Euskal Y-aren eskariari buruz egindako azterketen arabera, EAEko AHTan sei milioi eta erdi ibiliko dira asko jota.

Hoyosek esan zuen abiadura handian inbertitutako euro bakoitza beste nonbait inbertitu ezin izango den euroa dela. Eta Espainiako Estatuan bidaiari gehien daukan abiadura handiko tren-linearen adibidea aipatu zuen: Bartzelona-Madril. Analisisien arabera, Madril eta Bartzelona arteko AHTa eraikitzeak ongizate-galera eragin du, eta galera hori dirutan neur daiteke: 5.000 milioi euro inguru, Hoyosen berbetan. Estrapolazioa egin daiteke Euskal Y-ra? «Oso informazio gutxi daukagu, baina daukagun apur horretatik ondorioztatu daiteke egitasmo honen errentagarritasun soziala negatiboa izango dela».

Eusko Jaurlaritzak zabaldu izan du AHTak 15.000 milioi euroko inpaktua izango duela EAEko ekonomian. Datu horri ñabardura garrantzitsua erantsi dio Hoyosek: inpaktu horren % 98 proiektuaren eraikitze fasean gertatzen da. Izan ere, eraikuntza-sektoreari eragiten dio. «Eskola

bat eraikitzearen inpaktu sozial handiena eraikina dela esatea bezala da». Gainera, azpimarratu zuen abiadura handiko trenek ez dutela jarduera ekonomiko berririk sortzen, literatura akademikoak frogatzen duenez.

Bestalde, AHTak errepidezko zirkulazioan izango duen eragina txikia da, Hoyosen iritziz. EAEn egunero egiten diren sei milioi lekualdatzeen –horien erdia oinez egiten dira, eta heren bat autoz– % 1 baino ez da egiten abiadura handiko trenak beteko dituen korridoreetan. Hori da, hain segur, Euskal Y-a jendarte osoaren onerako proiektua ez dela sostengatzeko Hoyosek erabili dituen argudioetako bat. Bestea, 2008an Frantzia egindako inkesta baten emaitza da: abiadura handiko trenak diru gehien daukatenei egiten die mesede, batez ere. Inkesta haren ondorioa izan zen AHT bidezko bidaien % 28 errenta altueneko biztanleen % 10ek egiten dituztela. Lau bidaiatik hiru, berriz, errenta altueneko herritarren erdiak.

Ingurumen-jasangarritasunari dagokionez, Hoyosek dio AHTa ez litzatekeela alternatiba berdetzat aurkeztu behar. Hona Germà Belek emandako datua: hegazkina ordezkatzeko ari den eta urtero 8-10 milioi bidaiari dituen linea batek 30 urte behar ditu eraikuntzan isuritako CO2 kopurua berdintzeko. Ez da euskal kasua, esan gabe doa. Hoyosen kalkuluen arabera, Y-ak ehun urte beharko ditu bere karbono-zorra kitatzeko. Hori guztia, azpiegiturak berak sortutako bestelako inpaktuak kontuan izan gabe: lurraren okupazioa, hesi-efektua...

Euskal Y-aren eraikuntza-proiektuaren erdian gaude. 3.000 milioi euro inguru xahutu dira orain arte, eta gutxienez beste horrenbeste xahutuko dira. Aurrera jarraitzekotan, proiektua eraldatu eta geltoki gehiagoko abiadura arrunteko trenbide bihurtzeko aukera aztertzeko eskatu zuen Hoyosek. «Dauzkagun datuei erreparatuta, litekeena da Euskal Y-ak ohiko esplotazio-gastuak kitatzeko adina etekin ere ez ematea». Urtez urte diru publikotik edatearen menpe egongo litzateke haren bideragarritasuna, eta horrek ez luke justifikazio handirik, gogoan izan behar baita AHTa ez dela funtsezko premia bat asetzeko diseinatutako garraiobidea.

**BREA, Unai. Argia, 2015eko maiatzaren 24a. Egokitua.**

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 9. Zer dio artikulugileak Euskal Y-aren proiektuaz?

- a) Euskal Y-a babestu beharra dagoela, inondik inora.
- b) Proiektuak sekula ez duela egun bezain mesfidati izan gizartea.
- c) Gobernuek sutsuki ekin berri diotela proiektuaren bideragarritasunari.

### 10. Zer zioten Germà Belek eta David Hoyosek Legebiltzarreko agerraldian?

- a) Japonian eta Frantzian ez bezala, Espainiako Estatuan ezinezkoa dela AHTa errentagarri izatea.
- b) AHTa nekez izan litekeela errentagarri, bidaiari ugari izan ezean.
- c) AHTa errentagarri izateko, tokian tokiko linea guztiek adina bidaiari behar direla.

### 11. Zer esaten da errentagarritasun-atalaseaz?

- a) AHTa oso proiektu garestia denez, Japoniako eta Frantziako ereduak sustatu behar direla EAEn ere.
- b) Gizarteak AHTaren proiektua begi onez ikusteko, hobeto ikertu behar dela EAEn errentagarritasun-atalasea.
- c) Euskal Y-rako aurreikusten den bidaiari kopurua ez dela inbertsioa berreskuratzeko atalasea iristen.

### 12. Zergatik aipatzen da Bartzelona-Madril linearen adibidea?

- a) Estatuan bidaiari gehien daukan linea izanagatik ere, galera eragin duelako.
- b) Linea horrek eragin duen ongizate-galera dirutan neur daitekeelako.
- c) Euskal Y-az dugun informazio apurra osatzen lagunduko duelako.

### 13. Zer iritzi du Hoyosek AHTak izan dezakeen inpaktu ekonomikoaz?

- a) Eskola bat egitean bezala, eraikuntza-sektorean izango duela eraginik handiena.
- b) Literatura akademikoak argi erakusten dituela AHTaren proiektuak dituen gabeziak.
- c) Eraikitze fasetik harago ez duela etekin ekonomiko handirik ekarriko.

### 14. Hoyosen ustez, zergatik izango da txikia AHTak errepidezko zirkulazioan izango duen eragina?

- a) EAEn joan-etorri gehienak oinez edo autoz egiten direlako.
- b) AHTa ez delako ibiliko EAEn gehien egiten diren ibilbideetatik.
- c) Errepidezko zirkulazioaren % 1 baino ez duelako ordeztuko AHTak.

### 15. Zer adierazten du 2008an Frantzian egindako inkestak?

- a) Erabileraren proportzioak erakusten duela AHTak aberatsenei egiten diela onura.
- b) Errenta altueneko erabiltzaileen zenbatekoa aldakorra dela oso.
- c) Zenbat eta datu gehiagori erreparatu, nabarmenagoa dela bidaiarien errenten arteko aldea.

### 16. Zergatik ez da AHTa EAEn alternatiba berde, Hoyosen iritziz?

- a) Euskal Y-aren karbono-zorra kitatzeak luzeegi joko lukeelako, besteak beste.
- b) Linea batek, errentagarri izan arren, 30 urte beharko dituelako karbono-zorra kitatzeko.
- c) Ehun urteko ingurune-inpaktua eragingo duelako AHTak.

### 17. Zer irtenbide proposatzen da?

- a) Ustiatze-gastuak erabiltzaileen konturakoak izatea, nagusiki.
- b) Diru publikotik finantzatu ez den abiadura arrunteko trenbide bihurtzea.
- c) Oinarritzko beharretatik hurbilago dagoen proiektu baten aukera aztertzea.

## 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## ESPAZIO SOZIOPOLITIKOAK LURRALDEARI LOTU

Hainbat jatorritako krisiek bat egiten duten honetan, sektore dinamiko batzuk hasiak dira inertziatzko zama ideologikoak astintzen. Aldaketa sakonak helburu, lekuko baldintzak helbide, hamaika ideia birpentsatu beharra dago, geroa ezin baita eskema zaharretan oinarritu. Paradigma berriek galdera berriak ekarri dituzte. Bestelako ibilbide-mapak behar ditugu, lekukoari lotuak. Hortaz, bazen garaia soziopolitikak beharrezkoa duen kultura berritzeko bidean, politikatzat hartu ez diren elementuak uztartzeko.

Testuinguru horretan sartzen da lurraldearen gaineko gogoeta. Izan ere, asko hitz egiten dugu lurraldetasunaz, eta gutxi lurraldeaz. Askotan gutxietsi egin dugu, garapen-ereduaren apustuan, lurraldeak duen garrantzia, zentzuzko lurralde-antolamendua gainditzeke dugun ikasgai nagusi bat izatera heltzeraino: lurraldeko espazio bakoitzari, guztiak hartuta, bere zeregina eta funtzio propioa onartu eta bermatzen dizkion antolamendu orekatuan eta horizontalean integratua. Are gehiago, iraunkortasuna helburu, lurralde-antolamenduak izan beharko luke hara hurbiltzeko funtsezko ibilbidea, lurraldea baita sozioekonomian egin behar diren era askotako apustuen espazio-esparrua.

Lurraldea ez da kontzeptu geografiko hutsa: erabakiak hartzeko muga ere bada. Lurraldeak berezko ezaugarri biofisikoak ditu, giza jardueren euskarri fisikoa izateaz gain, herrigintza-prozesuak behar dituen baliabideak eta gozabideak eskaintzen dituena, ahal duen neurrian, betiere. Lurraldea antolatzeak baliabideok modu iraunkorrean kudeatzea izan beharko luke, bertan bertokoa, eta bertokoen eskutik. Herria ez da kontzeptu politiko hutsa, eskubideak dituzten pertsona-taldea, talde hori bizi den lurraldea ere bada, eta horri lotua gauzatu behar da herrigintza, lurraldeari zeharkako dimentsioa aitortuz. Hortik dator eskualdeen garrantzia, hurbiltasun-paradigmaren funtsezko espazioak baitira, baina, zoritxarrez, oraindik ez dute izaera juridikorik.

Antxon Lafontek esan ohi duena gogoan, lurralde kontzeptuaren baitan bat egiten dute lurrak eta identitateak. Hots, lurraldearen espazio bakoitzean gertatzen da elementu bion uztarketa, fisikoa eta soziala. Baina arazoa da antolamendu-arauetan tematu egin garela biak espazioan desberdintzen: ingurune fisikoa landa-eremuarekin lotu da, gehienbat; eta ingurune soziala, hiriarekin. Horrela, lurraldea zatikatu egin dugu, hiri nagusietan fokalizatu, eta hiria-landa continuuma eten; Gaindegiaren (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) datu-argazkiak dira horren erakusle. Hortik dator azpiegitura handien gaitza (garraioa, merkataritza...), garapena lurraldeaz aparte ulertzearen hurrena. Hortaz, Euskal Hiria kontzeptua nagusitu da, eta kontu handiz ibiltzeko kontzeptua da berori, honen edo haren ahoan jarrita pentsaera-mundu zeharo desberdinak adierazteko balio baitezake.

Lakuako Gobernuak *Lurralde Antolamendurako Gidalerroak* («politika eta tresnak» barne) berrikusteko prozedura luzea abiatu du, eta oinarritzko dokumentu bat plazaratu du, «proposamen-agiri» modura. Kultura politikoa bera ere berritze-bidean garela, baitezpadakoa da Euskal Herriko «lurralde-eragileek» bertoko gobernuen dokumentuak behar bezala aztertu eta egin beharreko proposamenak egitea, bihar-etzi izan daitezkeen bestelako legeen bidean; inoiz ez baikara hutsetik abiatuko, soziopolitikaren espazioa ere continuum bat delako. Are gehiago, egunotan Eudel eta Udalbiltza albiste direnean, eta laster, agian, baita Lurralde Historikoen Legea fosil biziduna ere. Politika eta sozioekonomia ere territorializatu egin behar dira, espazioa berez delako territorializatua.

Gidalerroak berrikusteko arrazoiak aurkezten dira dokumentuan, lehen ez ziren paradigmak izan badiarelako gaur egun, lurralde-politikan guztiz kontuan hartzekoak. Alde horretatik, iradokitzailea da, zeharkako gaiak bilduta: genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara, lurralde-

erlazioa. Aurrerapauso kontzeptuala, ez bairik gabe. Bilatzen den eredu berrian, lurraldeari lotzen zaizkion oinarriak izan beharko dira, besteak beste, adimentsua izatea (kontuz ibiltzeko moduko kontzeptua, berori ere), iraunkorra, sozial-integratzailea, elkarlotutakoa eta parte-hartzailea. Azken hori da beren-beregi azpimarratzen den «berrikuntza» lurralde-politikaren «kudeaketan eta garapenean partaidetzarako kultura eta gobernu ona sustatu» nahi delako, «lan egiteko gobernantza berri bat». Izan bedi! Gobernantza kontzeptua ere erakargarria da, gobernatzeko kultura aldatzeko bada, behingoz.

Hala ere, kultura berria behar duten gauzen zerrendan kritikatzekoa dena ere sartu behar da. Kritika funtsezkoa da lurralde-politikan,

gerora begira ez dezagun, paperak jasotako paradigma guztien gainetik, lurraldea hartu orain arteko iraganean hartu izan dugun legez: zatikatua eta guztiz desorekatua; egunotako hainbat albiste horren lekuko. Are gehiago, lurralde-kultura berriak baldintzatzailea behar du izan, lurraldearen espazio desberdinetan izan daitezkeen jarduera iraunkorrak, sozialean eta ingurumenekoan, baldintzatzekoa, eta ez kapitalaren aldian aldiko desira-objektu diren espazioen kudeaketa makillatzekoa. Hortaz, ekonomia-kultura bera aldatzeko balio behar du lurraldearen, parte-hartzearen eta gobernantzaren kulturak. Bestela, zertarako hainbeste paradigma?

**ANTIGUEDAD, Iñaki.** <berria.eus>, 2016ko otsaila.  
Egokitua.

### 3. ariketa. Aukeratu erantzuna

#### 18. Zer gertatzen ari da gaur egun, Antiguadaren ustez?

- a) Lekukoaren krisian hainbat sektore aldaketa sakonak egiten ari direla.
- b) Krisiengatik sortutako paradigma-aldaketaren ondorioz, eragile batzuen kultura aldatzen ari dela.
- c) Krisiek oraindik baldintzatzen dutela kultura politiko berri bat egitea.

#### 19. Zer hausnarketa egiten du testugileak lurraldearen gainean?

- a) Iraunkortasuna lortuko bada, lurraldea antolatzeko moduari bestelako garrantzia eman beharko zaio.
- b) Lurraldearen garapen-eredua gutxietsi egin dugula askotan.
- c) Iraunkortasun orekatua eta horizontala izan behar da sozioekonomia berriaren apustua.

#### 20. Zer dio Antiguaderek lurraz eta identitateaz?

- a) Euskal Hiria kontzeptuak garapena gaizki ulertzera eramán gaituela.
- b) Lehenetsi egin dugula elementu fisikoa sozialaren gainetik.
- c) Biak batera garatu beharrean, banandu egin ditugula.

#### 21. Zer esaten du testugileak Eusko Jaurlaritzaren dokumentuaz?

- a) Gaia lantzen duten eragileak animatu nahi dituela ekarpenak egin ditzaten.
- b) Lurralde antolamenduaren ikuspegia oraindik ez dagoela txertatuta gobernuen gaur egungo agendan.
- c) Soziopolitikaren eta lurraldearen arteko harremana berrikusteko aukerarik ez duela eskaintzen.

#### 22. Zer igartzen dio Antiguaderek dokumentuari?

- a) Kontzeptu eta berrikuntza arriskutsu batzuk proposatzen dituela.
- b) Betiko paradigmatan dagoela oinarrituta, baina kontzeptu berriekin.
- c) Aldaketa dakarrela, zenbait puntutan berritzailea eta iradokitzailea delako.

**23. Zer esaten du testugileak parte hartzeari buruz?**

- a) Bat datorrela Eusko Jaurlaritzak ematen dion garrantziarekin.
- b) Etorkizuneko gobernuek gehiago bultzatu beharko luketela.
- c) Kontzeptu horrek, beste batzuekin batera, gobernatzeko modua aldatu duela.

**24. Kritika dela eta, zer dio Antiguadedek?**

- a) Paradigma berriek berez dakartela kritika egiteko modu berri bat.
- b) Ezinbestekoa dela iraganean egindako akatsak zuzentzeko.
- c) Gehiegizko kritikek lurralde-kultura berria baldintza dezaketela.

**25. Zein da artikuluaen ideia orokorra?**

- a) Paradigma berrien sorkuntzan, lurraldeari lotutakoa ere gertatzen ari da.
- b) Administrazioak aukera interesgarria eskaini du eragilerik aktiboenek parte hartzeko.
- c) Sortzen ari den soziopolitika-kulturan ezinbestekoak dira lurraldeari lotutako kontzeptuak.



## Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
  - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
  - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.  
Oharra: **Asmatu izenpea** azterketaren anonimotasuna bermatzeko.

- GAIA:** Zure erakundeak hitzarmen bat sinatu berri du EAEko hainbat unibertsitaterekin eta, horren ondorioz, arlo batzuetan aukera egongo da praktiketako ikasleak hartzeko, sei hilabeteko lanak egin ditzaten, erakundeko langileoi eguneroko lanetan laguntzen.
- Zure atalaren izenean, idatzi gutuna arloburuari ikasle horietako baten laguntza eskatzeko, eta azaldu zergatik behar duzuen eta zertan lagundu beharko lukeen.

**2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako**

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
  - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
  - Ideiak **garatu** eta **lotu** egin behar dituzu.
  - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

**TESTU AIPAMENAK****1.****ANTIBIOTIKOEN ERABILPENA  
AUZITAN**

Ez dugu erremediorik. Antibiotikoen erabilpen traketsaren erruz, hilgarri izateari utzi zioten gaitz asko berriro ere hilgarri dira: sendabiderik gabe gelditzen ari da gizakia. Zenbat eta gehiagotan jarri bakterio bat antibiotiko baten eraginpean, handiagoa da bakterioak antibiotiko horrekiko erresistentzia garatzeko probabilitatea. Ez dago, oraingoz, antibiotiko zahar haiek ordezkatzeko dituen beste antibiotikorik.

Zer egin daiteke? Gero eta gehiago dira bakterio erresistentziari aurre egiteko estrategia globalen inguruko ekimenak. Antibiotiko berrien garapena bultzatu eta kontrolatzeko neurriak ezartzea proposatzen dute hainbat osasun-agintaririk arazoari aurre egiteko. Baina, zalantzarik gabe, jada existitzen diren antibiotikoen erabilpena murriztea da egin beharreko garrantzitsuena, eta hor, batez ere nekazaritzan, abeltzaintzan eta akuikulturan egiten den antibiotikoen erabilpena dago auzitan.

**LASA, I. Berria, 2014ko urtarrila. Egokitua.**

**2.****LANKIDETZA KONTSUMOA**

Bryan Walsh-ek ziurtatzen duenez, lankidetzakontsumoari buruzko artikulu batean: «Egunen batean XX. mendeari begiratuko diogu eta zergatik geneuzkan hainbeste gauza galdetuko diogu geure buruari».

Lankidetzakontsumoaz hitz egiten dugunean zerbitzu bezala eskaintzen diren produktu batzuez ari gara, partikularren artean alokairuan har daitezkeenak, partekatzeaz (autoak, bizikletak, bidaiak...), jadanik erabiltzen ez diren gauzakien birbanaketaz, eta lankidetzakontsumoaren estalpena, zeinetan antzeko interesak dituen jendea elkartzeko baita denbora partekatzeak, gunea edo trebetasunak.

Lankidetzakontsumoa hautabide bat da, orain arte nagusi izan den «erabili eta bota» kulturaren aurrean.

Balio-aldakuntza bat ere sortzen ari da, jabearekiko jarrera-aldakuntza bat nagusitu da. Kontsumitzaileek lehenetsia ematen diote ondasunez gozatzeari eta ez horien jabe izateari. Kontsumitzaileek ahalik eta gehien gozatu nahi dute esperientziak, kostuaren erantzukizuna izan gabe eta jabetza tradizionalak dakarren konpromisorik gabe.

**<innobasque.com>, 2012ko apirilaren 17a. Egokitua**

3.

**ADIERAZPEN ASKATASUNA ALA  
GARBITASUNA?**

Zer da kalea? Zertarako erabiltzen da, eta nola? Norena da? Nola arautu behar dira kaleko adierazpen politiko, sozial eta artistikoak? Edo, besterik gabe, beharrezkoa da arautzea? Eztabaida kalean dago. Ez da berria, baina gero eta herri gehiagotan ari dira ezartzen kalegarbiketaren inguruko ordenantzak. Eta arau horiek edo, besterik gabe, kartelak eta bestelako adierazpideak kentzeko erabakiek hautsak harrotu dituzte.

Adierazpen-askatasunaren aurkako erasotzat hartu dituzte batzuek, kalea komunikazio-esparru gisa aldarrikatzen baitute; beste zenbaiten iritziz, beharrezkoak dira, hormak eta kaleak txukun edukitzeko. Non dago oreka?

**Berria, 2016ko maiatza. Egokitua.**

5.

**KIROLA, IHESBIDE?**

Modan daude maratoiak, triatloiak, ultrak eta trailak. Gero eta jende gehiago gero eta proba gogorragoetarako prestatzen, errepideetan zein mendietan gora lasterka, diru-trukeko lanaz aparteko bizi-ekintza, eta energia-xurgatzaile handiena horixe bihurtuta. Eta neure buruari galdezka: indar eta energia hori ezin da beste kontu probetxugarriagoetara bideratu? Irudika ditzaket askoren erantzunak: praktika osasungarria dela, norbere burua zaintzeko modua, estresa askatzekoa, besteekin harremanetan jartzeko, baita taldetasuna lantzekoa ere.

Ez da kapitalismoaren zola ideologikoa den meritokraziaren gainean eraikitzen den ihesaldi kolektibo handi bat? Norbere buruarekin lehian, norbere burua indartsu egiteko ametssez, sinetsita ahalegina egiten duenak beti jasotzen duela ordaina?

**ESKISABEL, Idurre. Berria, 2015eko azaroa. Egokitua.**

4.

**POSIBLE DA BESTE TURISMO  
EREDU BAT?**

Turismoak lau motako eraginak dakartza: ingurumenari dagozkionak, ekonomikoak, soziokulturalak eta eskala txikiagokoak.

Turismoaren eraginez lekuko jarduerak ekonomiko tradizionalak bertan behera uzten dira, eta gastu publiko handia egiten da atzerritarren inbertsioak erakartzeko. Oinarrizko baliabideak garestitzen dira, baliabideak neurritz gain ustiatzen direlako. Bizitza-eredu kontsumista esportatzen da, eta horrek gizartearen nortasuna, balioak eta bizitzeko era tradizionalak mehatxatzen ditu. Turismoaren inguruan mito faltsu bat dago: enpleguaren sorrerarena. Turismoak sortzen dituen enpleguak aldi baterakoak, prekarioak eta kalitate txarrekoak dira. Turismo iraunkorraren kontzeptua garapen iraunkorrari lotuta dago: turismo iraunkor bakarra gure etxetik oinez edota bizikletaz ateratzean egiten duguna da.

**<argia.eus>, 2014ko abuztua. Egokitua.**

6.

**HIRIGINTZA ETA EUSKARA**

«Lurraldea eta hizkuntza» jardunaldietako adituek gurean berria den gaia aztertu dute: hazkunde urbanistiko berriek eragiten dituzten distorsio soziolinguistikoak herri eta eskualde euskaldunetan. Hirigintzaren alorrean hartutako erabakiak ez baitira neutroak: egoera minorizatuan dagoen hiztun-komunitate bat hautsi dezakete.

Hirigileek, baina, ez dute harreman hori ikusten. Arraroa, kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz hainbeste hitz egiten den garaian. Hirigintza-planak gelditu izan dira igeltxo, bisoi edo paduretako ornogabeengatik, baina euskaldun gaixoaren habitata desnaturalizatzeak ez du inor kezkatzen.

Ez da eskatzen euskara hirigintzaren eztabaidaren erdian egotea, eremu euskaldunetako hirigintza-planetan kontuan hartzea baizik, beste hainbat gairekin egiten den bezala. Tokiko kultura-ondarearen hobe beharrez besterik ez bada ere.

**<unibertsitatea.net>, 2014ko urtarrila. Egokitua.**

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



- **1. ariketa:** txertatu testu zatiak.
- **Irakurgaia:** «BERRIKUNTZA: PUBLIKOA ALA SOZIALA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
Testu zatiak	C	E	A	G	F	I	H	B

Soberakoa	D
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «GERO ETA ARINAGO... SINESGARRITASUNA GALTZEN»

9.	B	10.	B	11.	C	12.	A	13.	C
14.	B	15.	A	16.	A	17.	C		

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ESPAZIO SOZIOPOLITIKOAK LURRALDEARI LOTU»

18.	B	19.	A	20.	C	21.	A	22.	C
23.	A	24.	B	25.	C				